



# Bideak 2017ko urria Batus

LANGILEON INFORMAZIO BULETINA

[www.lab.eus](http://www.lab.eus)

**LAB**



## LAN ETA BIZI DUINAK IZATEKO ESKUBIDEA ALDARRIKATUKO DUGU HERRIZ HERRI

"Lan duina, bizi duina". Horixe da, urriaren 16 eta abenduaren 6 bitartean, Euskal Herriko hainbat txoko zeharkatuko dituen ekimen ibiltariaren leloa. Hain zuzen ere, garaia da bizitzaren sostengarritasuna erdigunean jarriko duen eredu eraikitze, eta hala aldarrikatuko dugu herriz herri, eskualdez eskualde.

Bizitzaren prekarizazioari aurre egin eta bizitzaren sostengarritasuna, bizitza duinerako eskubidea, alegia, erdigunean jarri behar dugu. Kapitala eta merkatuak erdigunean kokatetik bizitza erdigunean jartzera pasatu behar dugu, eta horrek lan guztien aitortza eta defentsa egitea dakar, guzti-guztiena.

Hainbat errealitate daude, hainbat bereizketa egiten dira: lan produktiboa eta erreproduktiboa, langabeak eta landunak, finakoak eta behin behinekoak, lanaldi osoa edota lanaldi partziala dutenak, enpresa nagusiko eta azpikontratako langileak, gizarte segurantzako erregimen orokorrean daudenak eta erregimen berezituak dituztenak (etxeko langileak, ustezko autonomoak...), aniztasun funtzional edota sexu-ge-

nerikoagatik askotan diskriminatuak diren langileak, sexuan dabilzan langileak, migranteak, lan munduan sartu-irtenean ibiltzera kondenatuak daudenak, euren etxeetako langileak... Erabat zaitituta eta gero eta indibidualistagoak nahi gaituzte, indargabetzeko eta desmobilizatzeko helburuarekin, jakin badakitelako langile guztiok borroka bera dugula, xede beraren inguruan batu gaitzekela: lan eskubideen defentsan.

Bada, bide hori egiteko, LABek baditu alternatibak, beti ere berdintasunaren printzipiotik abiatuta: emaku-

me eta gizonen arteko parekidetasuna. Horretarako, ezinbestekoa da sistema kapitalista heteropatriarkala auzitan jartzea, diskriminazioak sortu eta elikatu egiten baititu, egiturazko arazo bilakatu arte.

35 orduen bitartez lana banatzea, benetako kontziliazio neurriak hartu eta korresponsabilitatea lantzea, jubilazio adina 60 urtera aurreratzea, aparteko ordukin amaitzea, enplegu publikoa sustatzea, 1.200 euro garbiko gutxieneko soldata ezartzea (Hego Euskal Herri-rako)... hauek guztiak eta beste batzuk ardatz hartuta, klase subjektua bere osotasunean proiektatu eta kolektibo zehatzei eskaintza egingo die LABek.

Hala, gure proposamenak plazaratuko ditugu abendu bitartean egingo dugun ekimen ibiltariarekin.

**Kapitala eta merkatuak erdigunean kokatetik bizitza erdigunean jartzera pasatu behar dugu, eta horrek lan guztien aitortza eta defentsa egitea dakar, guzti guztiena**



# “Langile multzo guztiak borrokara ekartzeko eskaintza konkretuak egiteko gai izan behar dugu ekintza soziosindikal berrituarekin”

Xabier Ugartemendia eta Bea Martxueta elkarrizketatu ditugu, “Lan duina, bizi duina” ekimen ibiltariaren helburuei buruz hitz egiteko. Ekintza Sindikaleko eta Negoziazio Kolektiboko idazkaria da bata; Ekintza Sozialeko idazkaria, bestea. Langile senti-tzen den orok LAB sindikatuan lekua duela nabarmendu dute biek.

**Zer da LABek abian jarriko duen ekimen ibiltaria? Zein helburu ditu?**

**Bea Martxueta (B. M.):** ‘Kapitala versus bizitza’ gatazka ardatz moduan dugu Biltzar Nagusiaren ponentzian. Borroka paraleloak izan ditugu orain arte. Bada, hemendik aurrera, borroka paralelo horiek bat egingo dute, estrategia soziosindikal berritu bat garatzea baita gure erronka. Horretarako, lehenik eta behin, pedagogia asko egin behar dugu; bigarrenik, diskurtsoa eta praktika politiki politiki joan behar ditugu batzen; eta hirugarrenik, borroka integral hori egituratu behar dugu. Imaginario kolektiboa aldatu beharra dugu. Hau guztia eskualdeetara eraman nahi dugu, gure afiliatu eta delegatuekin konpartitzeko.

**Xabier Ugartemendia (X. U.):** Klase subjektua bere osotasunean proiektatu eta kolektibo zehatzei begira eskaintza badugula plazaratu nahi dugu.

**Goizean enpresetan ibiliko da LAB; arratsaldean, berriz, kalean. Zergatik hartu duzue erabaki hau?**

**X. U.:** Pairatzen ari garen egoerari buelta emateko borroka eta langileen mobilizazioa sustatu behar ditugula izan da Birpentsatzen prozesutik ateratako ondorio bat, azken Biltzar Nagusia lekuko. Beraz, ekimen ibiltariak bi helburu horiek lortzeko dinamika bat da. Kalera zein lan zentroetara eraman nahi dugu LABen babesa,

prekarietatearen aurkako borrokaren harira. Goizez lan zentroetan egongo gara eta arratsaldean, kalean.

**Lan eta bizi duina aldarrikatuko ditugu. Bata bestearekin lotuta dago, ezta?**

**B. M.:** Bai, sistemak, kapitalak, lan baldintzak prekarizatzen ditu, baina gure bizitza ere bai. Honek, desberdintasun ekonomikoak ez ezik, desberdintasun sozialak ere ekartzen ditu. Horregatik esaten dugu dena bat dela. Azkenean, gure bizitza, gure herria eta gure natura dira arriskuan daudenak.

**X. U.:** Lana bizitzaren erdian kokatua egon da orain arte. Izan ere, gure bizitza lanaren arabera antolatua dago oraindik, eta hori aldatu nahi dugu. Bizitza erdigunean kokatu nahi dugu, eta lana bizitzaren arabera antolatu.

**Helburu hauek ardatz hartuta, zein da LABek euskal herritar eta langileei egiten dien eskaintza?**

**B. M.:** Gure delegatu eta afiliatuei ez ezik, langile orori ere esaten diegu LABen lekua dutela, ekintza soziosindikal berritu honekin eta langile klasea berrosatzeko helburuarekin bat eginez gero. Langilea sentitzen den ororentzat dugu borroka eta babes eskaintza.

**X. U.:** Ekintza sindikaleko ikuspuntutik, ekintza sindikaleko planteamendu bat egiten eta leku guztietara eramaten saiatu gara orain arte, eta ikusi dugu hori jada ez dela baliagarria; toki bakoitzak, langile klasea osatzen duten multzo desberdinek, aukera eta kontzeptu desberdinak dituzte eta. Hala, bakoitzaren baliabideetatik abiatuta, langile multzo horiek guztiak borrokara ekartzeko eskaintza konkretuak egiteko gai izan

behar dugu ekintza soziosindikal berrituarekin. Hori da gure erronka nagusia, multzo horiei guztiei borroka pizteko aukera ematea. Orain arte, langile askok eta, batez ere, prekarietatea gehien pairatzen dutenek esan izan dute prekarioak ere badirela borrokatzeko garaian; ez dutela gaitasunik borrokatzeko, alegia. Hortaz, abian jarri nahi dugun ekintza soziosindikal berritu honekin, langile horiei eskaintza konkretu bat egitea da lortu behar duguna, borrokaren parte izateko eta eurak ere protagonista bihurtzeko, beti ere pairatzen duten egoeratik irteten daitezen.



# ANTOLAKETA ETA BORROKA, PREKARIETATEARI AURRE EGITEKO

Juan Mari, Edurne, Maria, Patricia, Rosa... milaka eta milaka dira prekarietatearen aurpegiak, milaka eta milaka dira lan eskubideak urratuak dituztenak, eta askok eta askok modu ikusezinean egiten dute lan, euren eskubideak defendatu ezinik. Zu ere, antzeko egoeran bazaude, gerturatu zaitez LAB sindikatura lan eta bizitza duin baten alde elkarrekin borrokatzeko.

## Maria, Enplegu Zentro Bereziko langilea

"Gure lana ez dago jendartean aitortua; ez gaituzte langile gisa ikusten"

"Aniztasun funtzionala dugunok enplegu arruntean sartzeko eskubiderik ez dugu, eta, lana topatuz gero, Enplegu Zentro Berezietan izan ohi da, eta hauek enpresa handien edo administrazioaren azpikontrata merkeak dira.

Gure lan baldintzak gainontzeko langileena baino prekarioagoak dira. Ez dizkigute lan egiten dugun enpresako edo administrazioako lan baldintzak aplikatzen, ezta dagokigun sektoreko hitzarmena ere ez.

Gure lana ez dago jendartean aitortua; ez gaituzte langile gisa ikusten".

## Aritz, bekaduna

"Ordaindu beharreko bidesari moduan ikusten dugu gure egoera"

"Lan konkretu bat egiteko nago bekadun, baina niri ez dagozkidan lanak ere ematen dizkirate, eta ezin dugu ezetz esan. Berriak gara eta irudi ona eman nahi dugu. Lan merkaturan sartzeko ordaindu beharreko bidesari moduan ikusten dugu gure egoera. Zoritxarrez, ikuspegi hau normalizatuta dago jendartean".

## Patricia, pentsionista

"Familia laguntzen dut; zailtasunak ditut hilabete bukaerara iristeko"

"Familia laguntzen dut nire pentsioarekin, koordaintza sanitarioari egin behar diot aurre eta zailtasunak ditut hilabete bukaerara iristeko. Zoritxarrez, bost axola diegu instituzio eta alderdi politikoei, EAJ-PP-PSOE-UPN alderdiei. Urteak eman ditugu 1.080 euroko pentsio duin bat aldarrikatzen eta oraindik horretan gaude".

## Edurne, langabea

"Gazteriak gurasoen etxean, atzerrian edo lan prekarioetan bukatzen du"

"Lan on bat izateko goi mailako ikasketak behar genituela esan digute beti. Nire belaunaldiko beste hainbeste bezala langabezia nago. Formakuntza gehiegi dut lanpostu batzuetarako eta esperientzia gutxiegi beste batzuetarako. Gazteriak gurasoen etxean, atzerrian edo lan prekarioetan bukatzen du. Iruzur egin digute".

## Juan Mari, ustezko autonomia

"Enpresariak inongo justifikaziorik gabe kaleratu gaitzake"

"Gure lanaldiaren %100 enpresa batentzat lan egiten dugu, baina ez dugu kontraturik eta autonomoen erregimenean alta ematera behartzen gaituzte. Kontratudun pertsona bat bezala egiten dugu lan, baina ez ditugu gure sektoreari dagokion hitzarmenak jasotako eskubideak eskuragarri.

Ez dugu Gizarte Segurantzarik, eta enpresariak inongo justifikaziorik gabe kaleratu gaitzake, hobeki datorkionean, bat-batean eta kitapenik gabe, beste batentzat lan egiteko langile bat autonomo izatera behartzea oraindik orain legezkoa ez denean".

## Rosa, soldatapeko langilea

"Beste lan batzuk bilatzera behartuta nago soldata osatzeko"

"Azpikontrata batean lan egiteagatik gutxiago kobratzen dut, enpresak zuzenean ordaintzen duenarekin alderatuta. Gainera, nire borondatearen kontra dut lanaldi partziala, oso txikia dena. Hala, soldatarekin ezinezkoa egiten zait hilabete bukaerara iristea. Beste lan batzuk bilatzera behartuta nago soldata osatzeko, eta honek lana eta familia uztartzea ezinezkoa egiten du; egunero 12 ordu baino gehiago ibiltzen naiz leku batetik bestera. Era berean, lanaldi partzialaren babesik eza salatu nahiko nuke. Beste lan batzuk aurkitu ezean, pertsona asko laguntza sozialaren menpe daude. Gainera, nahi dutenean aldatzen digute lanaldia, eta horrek are eta gehiago zailtzen du beste lan batean egonkortzea".

## Inma, Osakidetzako langilea

"Osakidetzaren zerrendetan nago, eta telefonoaren morroi naiz"

"Osakidetzaren zerrendetan nago, eta telefonoaren morroi naiz, noiz deituko ote didaten zain nagoelako lanik ez dudanean. Eta lana dudanean, ez dut egonkortasunik. Goizean goiz deitu ahal zaitzakete egun horretan bertan urrun dagoen osasun etxe batean egun bateko kontratua betetzeko.

Gainera, kalitatezko zerbitzua ematea zaila egiten zaigu, lan kargak gero eta handiagoak direlako, murrizketak direla-eta".

## Maria, norberaren etxeko langilea

"Gure lana ikusezina da lan merkaturan; kapitalagatik esplotatuak gaude"

"Etxeko eta zaintza lanetan eman dut bizitza osoa, lanaldi osoz. Emakumeak gara gehienak. Sistemak populazio pasibotzat jotzen bagaitu ere, sozialki eta ekonomikoki ezinbestekoa da gure lana. Ez da BPG-n zenbatzen, ez dugu soldatarik jasotzen eta ez dugu baja eta pentsio eskubiderik. Gure lana ikusezina da lan merkaturan; kapitalagatik esplotatuak gaude eta sistema hetero-patriarkalarentzat ezinbestekoak gara".

## Ramon, metalgintzako langilea

"Borroka da langileen eskubideen alde eragiteko tresnarik eraginkorrena"

"2015. urteaz geroztik agortuta genuen ituna enpresarekin, eta greba mugagabea egitera behartuak egon gara, 16 hilabetezko negoziaketan ostean, akordioa lortzeko. Borroka luzea eta gogorra izan da.

Eskubide sozialak lehenetsi ditugu igoera ekonomikoaren gainetik. Dagokiguna eskatu dugu, besterik ez.

Borroka da eskubideen alde eragiteko tresnarik eraginkorrena".

## Mari Mar, etxeko langilea

"Bajak eta langabezia gisako eskubideak ez dizkigute aitortzen"

"Etxeko langile gehienak emakumeak gara, eta menpekotasuna duten pertsonen zaintza lanetan aritzen gara, batez ere. Barneko langileak garenak, gainera, migranteak gara eta horietako batzuk ez dugu agiririk. Legeak dio Gizarte Segurantzaren alta emanda egon behar dugula, baina bajak eta langabezia gisako eskubideak ez dizkigute aitortzen.

Gure lana ez dago zehaztuta; hortaz, edozein motatako lanak egitera behartzen gaituzte. Lan baldintza oso prekarioak ditugu; barneko langileen kasuan, esklabotzatik oso gertu. Soldata oso baxuak ditugu, eta ordu asko lan egiten ditugu, ia atsendenik gabe".





bat egingo dugu SAR QUAVITAE enpresaren aurrean. Amaitzeko, propaganda banatuko dugu azokan.

## Urriak 20 TUTERA

- Goizean, ekintza sindikaleko tailerrak gauzatuko ditugu. Ondoren UVESA enpresaren aurrean ustezko autonomoen egoera salatuko dugu.
- Arratsaldean etorkinek pairatzen duten egoera salatuko dugu. Eta eguna amaitzeko kalejira antolatu dugu.

## Urriak 21 TAFALLA

- Propaganda banaketa egingo dugu prekarietatea salatzeko. Horrez gain, gazteek pairatzen duten egoeraren salaketa kalera aterako dugu.

## Urriak 23 SAN ADRIAN

- Goizean, kultur etxean, ekintza sindikaleko tailerrak egingo ditugu. Ondoren, General Mills enpresako akordioa salatuz mobilizatuko gara.
- Arratsaldean, Andosilan lan feminizatuaeren inguruko azterketa egingo dugu herriko talde feministarekin batera.

## Urriak 24 BARAÑAIN

- Goizean, zerbitzu pribatuetako delegatuekin batzarra burutuko dugu eta gazteek pairatzen duen prekarietatea salatuko dugu Decathlonen.
- Arratsaldean, AHT makroproiektuak izango dituen ondorioak salatuko ditugu.

## Urriak 25 IRUÑEA

- Goizean sektore soziokomunitarioko delegatuekin “Ekintza sindikal berri” izeneko tailerra egingo dugu eta Misericordia erresidentzian lan hitzarmenaren alde borrokatuko gara.
- Arratsaldean Mugimendu Feministarekin batera mobilizatuko gara.

## Urriak 26 ZANGOTZA

- Goizean tailerrak burutuko ditugu lan munduko gai ezberdinen inguruan LABeko egoitzan. Ondoren Masquatro kirol kudeaketara gerturatuko gara hitzarmenen defentsa eginez.
- Arratsaldean kaletik agjprop bat egingo dugu.

## Urriak 27 BAIONA

- Goizean zein arratsaldean Makronen lan erreformaren kontra egingo dugu.

## Urriak 28 AZKAINE

- Larrunen burutu nahi duten makroproiektua salatuko dugu.

## Urriak 30 BERA

- Goizean Berako egoitzan tailerrak burutuko ditugu lan munduko gai ezberdinen inguruan. Ondoren Lesakako Arcelor-era gerturatuko gara enplegu suntsiketa salatzera.
- Arratsaldean Behobiako mugan turismo eredua salatuko dugu eta “Jaietan denok jai” izateko eskubidea aldarrikatu.

## Urriak 31 IRUN - HONDARRIBIA

- Goizean Irunen tailerrak egingo ditugu industriari begira eta mobilizazioak egingo ditugu.
- Hondarrribian *la mano invisible* filma proiektatuko dugu. Ondoren gaiaren inguruan solasteko parada izango da.

     Argitalpen hau ixterakoan, zenbait jarduera zehazteko zeuden oraindik. Horiek ez ditugu jaso, aldaketak egon zitezkeelako.

*Al cierre de esta publicación, todavía quedaban algunas actividades por concretar. No las hemos incluido en el programa, porque, en ese momento, eran susceptibles de sufrir modificaciones.*

## Azaroak 6 LASARTE

- Michelin-go azpikontratetan ematen den egoera salatuko dugu. Horrez gain, garraio publikoan izan diren murrizketa eta enplegu suntsiketak azaleratuko ditugu.

## Azaroak 7 HERNANI

- Eguna lan osasunaren egoera salatuz hasiko dugu. Ostean, “Ekintza sindikal berria” tailerra egungo dugu. Bestalde, ekitaldi nazionala burutuko dugu Errusiako Iraultzaren 100. urteurrena dela eta.

## Azaroak 8 ADUNA - TOLOSA

- Irizar-e mobility enpresak gazteak modu prekarioan kontratatzen dituela salatuko dugu.
- Tolosan “Jaietan jai” dinamika landuko dugu.

## Azaroak 9 BEASAIN - URRETXU

- Haur eskoletako langileen grebarekin bat egin eta Carrefour eta merkatalgune handietara joanga gara ordu extrak salatuz.
- Arratsaldean gazteekin batera mobilizatuko gara.

## Azaroak 10-11 GASTEIZ

- Goizean, federaziotan pairatzen den prekarietatea azalaraziko dugu.
- Arratsaldean hainbat tailer egingo ditugu feminismoaren inguruan, baita ekosozialismoa jorratzeko ere. Horrez gain zerbitzu publikoen alde mobilizatuko gara.

## Azaroak 13 OION

- Kotxe karabana burutuko dugu prekarietatea salatuz. Horrekin batera propaganda banatuko dugu. Arratsaldean informazioa zabalduko dugu.

## Azaroak 14 AGURAIN

- Ehun Produktiboaren suntsiketa salatuko dugu kotxe karabana bidez eta pankartak jarritz. Amaitzeko propaganda banatuko dugu Agurainen.

## Azaroak 15 ARRASATE

- “Ekintza sindikal berria” tailerra egingo dugu. Ostean Eroski, LIDL eta BMren aurrean mobilizatuko gara hitzarmen estatalak salatzeko.
- Arratsaldean irakaskuntzako grebaren harira hiltzaldia antolatu dugu.

## Azaroak 16 ZESTOA - ZUMAIA

- “Ekintza sindikal berria” tailerra egingo dugu. Ondoren Udaletxeko Plazan mobilizatuko gara zerbitzuen azpikontratzea salatzeko.
- Arratsaldean, “Malen Etxeko”-ekin etxeko langileen gaia herriratuko dugu. Bestalde, gazteekin turismoa eta prekarietatea izango ditugu aztergai.

## Azaroak 17 AZKOITIA - AZPEITIA

- Goizean lan osasuna izango dugu aztergai. Egoera salatuz pankarta eta kartelak jarriko ditugu eta parodia bat egingo dugu..
- Arratsaldez, Azpeitian gazteekin batera ordu extrak salatuko ditugu.

## Azaroak 22-23-24-25 BILBO

- Emakumeen kontrako indarkeriaren aurka mobilizatuko gara. Zerbitzu publikoen aldeko egingo dugu. Horrez gain aniztasun funtzionala, pentsioak eta migranteak izango dira landuko ditugu gaietako batzuk.

## Azaroak 27 MUNGIA

- Goizean, “Ekintza sindikal berria” izenburuko mintegia eskainiko dugu. Ondoren enpresa txikien prekarizazioa eta langileen babesgabetasuna salatuko dugu eta amaitzeko azalera handiko komertzioen eredua eta lan baldintzen kontra egingo dugu.
- Arratsaldean herrian lan munduko egoeraren berri emango dugu.

## Azaroak 28 TXORIERRI - GETXO

- Goizean, Txorierrin kotxe karabana egoingo dugu gure industriaguneen desburujabetzaren kontra.
- Arratsaldean, hitzaldi bat eskainiko dugu eraldaketa feministan sindikalgintzak izan behar duen rolaren inguruan.

## Azaroak 29 ZALLA

- Kotxe karaba burutuko dugu. “Bertan lan eta bertan bizi” aldarria aterako dugu kalera.

## Azaroak 30 SESTAO

- Goizean, Sestaon ekintza sindikal berriaren inguruko mintegia eskainiko dugu eta mobilizazio burutuko dugu industria politika propioaren alde.

## Abenduak 1 LAUDIO

- “Ekintza sindikal berria” mintegia egingo dugu. Ostean, LIDL biltegian gazteek pairatzen duten prekarietatea salatuko dugu.
- Arratsaldean, gazteekin batera eskualdeko egoera aztertuko dugu.

## Abenduak 2 BASAURI

- Euskaraz lan egiteko eskubidea aldarrikatuko dugu.

## Abenduak 4 ARRATIA - ZORNOTZA


- Goizean Ekimen ibiltaria eskualdeko hainbat enpresetatik pasako da kontratazio berrietan diskriminaziorik egon ez dadin aldarrikatzeko.
- Arratsaldean Zornotzan pikete feminista antolatu dugu emakumeak lan munduan pairatzen dugun egoera salatuz.

## Abenduak 5 ERMUA - MALLABIA

- Goizean poligonoan ibiliko gara industriaren egoera salatzeko. Ondoren bi udaletxetan industria 4.0 dekalogoa erregistratuko dugu. Amaitzeko Ermuan elkarretaratzea egingo dugu eta propaganda banatu.
- Arratsaldean Ermuan TTIP/CETA akordioaren eragina aztergai izango dugu hitzaldi baten bidez.

# ORGANIZACIÓN Y LUCHA CONTRA LA PRECARIEDAD

Juan Mari, Edurne, Maria, Patricia, Rosa... miles y miles de personas sufren la precariedad de primera mano, miles y miles de personas ven vulnerados sus derechos laborales. Si tú también sufres una situación similar, te invitamos a acudir al sindicato LAB para luchar juntos y juntas en favor de un trabajo digno y una vida digna que nos aleje de la precariedad.





# REIVINDICAREMOS EN LOS PUEBLOS EL DERECHO A UN TRABAJO Y UNA VIDA DIGNAS



**Bideak**

2017ko urria

**Batuz**

LANGILEON INFORMAZIO BULETINA

**LAB**

www.lab.eus

“Lan duna, bizi duna”, o lo que es lo mismo, “trabajo digno, vida digna”. Este es el lema de la iniciativa itinerante que recorrerá, del 16 de octubre al 6 de diciembre, diferentes rincones de Euskal Herria. Es hora de construir el modelo que sitúe en el centro la sostenibilidad de la vida, por lo que esa será nuestra reivindicación, pueblo por pueblo, comarca por comarca.

Debemos hacer frente a la precarización de la vida y poner en el centro su sostenibilidad, es decir, el derecho a una vida digna. Debemos dar el salto y poner la propia vida en el centro, desplazando al capital y a los mercados de esa centralidad. Esto conlleva el reconocimiento y la defensa de todos los trabajos sin excepción.

**Debemos dar el salto y poner la vida en el centro, desplazando al capital y a los mercados de esa centralidad.**



peciales (trabajadoras del hogar, falsos autónomos y autónomas...), trabajadoras y trabajadores discriminados muchas veces por la diversidad funcional o sexo-generica, quienes trabajan en la prostitución, trabajadoras y trabajadores condenados a estar continuamente entrando y saliendo del mundo laboral, trabajadoras del hogar en su propio domicilio... Han conseguido la atomización y la individualización entre las y los trabajadores para desactivarnos y desmovilizarnos, puesto que son conscientes de que todas y to-

dos luchamos por la misma causa, tenemos el mismo objetivo: la defensa de los derechos laborales.

Pues bien, LAB cuenta con alternativas para recorrer ese camino, siempre partiendo del principio de igualdad: paridad y mismos derechos para mujeres y hombres. Es imprescindible poner en tela de juicio el sistema capitalista heteropatriarcal que crea y fomenta las discriminaciones hasta convertir la falta de igualdad en un problema estructural.

Reparto del empleo con la semana laboral de 35 horas, adoptar verdaderas medidas de conciliación y bajarando la responsabilidad, adelantar la edad de jubilación a los 60 años, acabar con las horas extras, promover el empleo público, establecer un salario mínimo neto de 1.200 euros (para Hego Euskal Herria)... tomando éstos y otros ejes como referencia, LAB proyectará el sujeto de clase en toda su amplitud y realizará su oferta a colectivos concretos. Con la iniciativa itinerante pretendemos dar a conocer todas nuestras propuestas.

